

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Funts bat eratzea 2022. urterako Gazteriaren Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta bertako langileen produktibitatea hobetzeko

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bateratua onesten duenak, honako hau xedatzen du 27. artikuluan:

“27. artikulua. Langile lan kontratudunen ordainsariak

Langile lan kontratudunen ordainsariak finkatzeko orduan, lan arloko legeria, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta lan kontratua hartuko dira oinarri, betiere, estatutu honen 21. artikuluan ezarritakoa errespetatuta”

Gazteriaren Foru Erakundearen 2018-2019rako hitzarmen kolektiboaren 19. artikulua jasotzen du Gazteriaren Foru Erakundeko langileek, oinarriko ordainsariez gain, berariaz sortutako ordainsari osagarriak ere jaso ditzaketela.

Gazteriaren Foru Erakundeko langileek jasotzen duten ordainsarian “produktibitate ordainsaria” delakoa nabarmendu behar da, zeina ondoz ondoko Estatuko aurrekontu legeen babespean sortu izan den; izan ere, lege horiek onartzen dute administrazio publikoek funtsak sortzea, zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta bertako langileen produktibitatea hobetzeko.

Foru administrazioaren alorrari dagokionez, 2021eko abenduaren 29ko ALHAOn (146 zk.) argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Araua. Arau horrek 71100. G/232753/15000750 “Produktibitatea” partida izenduna jasotzen du, 106.000,00 eurokoa.

Horrez gain, aipatutako hitzarmenaren 155. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundeko langileek eskubidea izango dute lan baldintzak zehazten direnean parte hartzeko, 156. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz; hots, negoziazio mahaia eratuko da eta mahai horretako partaideak Gazteriaren Foru Erakundeko ordezkariak eta enpresa batzordeko kideak izango dira, eta mahai horretan eztabaidatuko da funtsa sortzeaz.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea erakunde autonomoari atxikitako langileei aplikatu beharreko ordainsari araubidea eta soldata baldintzak.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.17 artikulua, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 7. eta 9. Artikuluetan xedatutakoarekin harremanetan.

Kontuhartzaitzeta Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. 2022. urterako 106.000,00 euroko zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta langileen produktibitatea hobetzeko funts bateratuko da. Produktibitate osagarriaren bidez aplikatuko da.

Bigarrena. Produktibitate osagarria kalkulatzeko irizpidea 2019ko otsailaren 4ko Enpresa Batzordearekin izenpetutako hitzarmenean agertutakoa izango da.

Hirugarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onartzen duen hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ